


KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA

EAEko familien konfiantza finkatu da

Familien konfiantza indizea




EAEko familien konfiantza indizeak bosgarren balio positibo jarraitua jaso zuen 2018ko bigarren hiruhilekoan eta hobekuntza txikia izan zuen aurreko datuaren aldean. Lehen sei hilekoaren batez bestekoa 1,5ean kokatu da, 2013tik lortu den daturik gorena. Goranzko norabide hori ekonomia hazkundean eta lan merkatuan bizi den egonkortasunean oinarritu da. Izan ere, kontsumitzaileek ekonomia orokorraz eta enpleguaz duten ikuspegia positiboa da. Familiaren ekonomiaz duten igurikimenak nabarmen zuhurragoak dira eta neutrotasuneko baliotan kokatu dira. Aitzitik, aurrezkiarekiko igurikimenean konfiantza balio negatibotan dago, nahiz eta aurreko hiruhilekoaren aldean hoberantz egin duen. Beste adierazle batzuei dagokienez, kontsumitzaileek inflazioak gora egingo duela aurreikusten dute eta erosketa unearen balorazioa ez da aldatu, oraindik negatibotzat jotzen baita.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2015	2016	2017	2017			2018	
				II	III	IV	I	II
Kontsumitzaileen konfiantza	-6	-5	1	5	0,4	1	1	2
Ekonomia orokorra	-4	-7	6	12	9	6	5	3
Familiaren ekonomia	-9	-5	-5	-3	-5	-4	-6	-3
Langabeziaren bilakaera	3	9	12	23	7	9	12	15
Aurrezteko ahalmena	-16	-12	-10	-12	-9	-8	-10	-7
Prezioen bilakaera	6	14	-17	-18	-6	-17	-24	-18
Erosteke momentua	-19	-8	-3	-3	-5	-2	-5	-11
Erosketa gauzatzea	-12	-10	-7	-8	-2	-7	-3	-6


Enpresarien konfiantza indizea



Laboral Kutxak enpresen konfiantzaz argitaratu duen indizea 56,6an kokatu da 2018ko hirugarren hiruhilekoan. Datu horrek beherakada esanguratsua dakar aurreko hiruhilekoko emaitzaren aldea. Indizea 50aren gainetik egoteak hedatzeko eremuan dagoela adierazten duen arren, EAEko enpresek ikuspegi ezkorragoa dute ekonomiaren bilakaeraz 2018ko uztailetik irailera bitarteko epean.

Igurikimena okertu den arren, egoera oraindik nahiko positiboa da eta ekoizteko ahalmena handitzeko eta, azken batean, landunen kopurua areagotzeko asmoari eusten diote.

Enpresarien igurikimenak. 2018ko III hiruhilekoa



Iturria: Laboral Kutxa.